

Arkitektura, paisaia eta turismoa.

Lanzarote eta Norvegiako turismo estrategien ereduak



Maidar Uriarte °

Aldiri, 2013. II, 14, 8-10. ISSN 1889-7185

Jasotze-data: 2013-03-15/ Onarpen-data: 2013-04-05

LABURPENA: Norvegiako eta Lanzaroteko ereduak erabiliz erakutsiko da posible dela turismoari zerbitzu emateaz gain, lurraldearen egitura eta paisaiaren izaeraren berrirakurketa eta eraldaketa modu sortzailean eta integratuan egitea, arkitektura erabiliz eta garapeneriaren bidetik joan gabe.

GAKO-HITZAK: errepideak, herri-arkitektura, diseinu garai-kidea, barneraketa

ABSTRACT: The article will describe the Norway and Lanzarote models to prove that it is possible to service tourists and also reinterpret and reform the landscape identity and land structure in a creative and integrated way by means of architectural interventions, and without falling into overdevelopment.

KEY WORDS: roads, vernacular architecture, contemporary design, integration

Turismo kontzeptua ingelesek «kontinentean» zehar, bereziki Mediterraneo inguruan, egiten zituzten bidaien eta garraio-sistemen garapenari nahiz industrializazioari lotuta ageri zaigu. Garai bateko «grand Tour» hastapenetako bidaia klasikoaren jarraipena eta moldaketa zen turismoak zerbitzu batzuk eskatzen zituen, turistentzako bereziki prestatutako azpiegiturak: hotelak, jatetxeak, geltokiak, harreraguneak, etab. Nolabait, egunerokotasunetik isolatutako funtzioak sortu ziren, tokian toki bezero bidaiarien eskakizunetara bideratuak. Bestetik, turismoaren eta irudien sorkuntza eta erreproduzioaren bidez espazio batzuen gorapamena zedarritu zen, nahitaez ezagutu beharreko tokien seinalizazioa.

Ordutik hona, bakoitza bere bazterretik bere espazioa ezberdin eta bakan egiten duen elementua eta ezaugarria azpimarratzen saiatu izan gara. Esan daiteke, turismoaren industria praktika sortzaile bat dela; lurraldearen, kulturaren, hiriaren berrirakurketa kreatiboak sustatzeko ahalmena izan baitezake. Kemen hau sarritan banalizazioz kutsatu izan da, kopiaren, kopiaren kopia eskainiz, irudi errepikakor eta hutsalen bidez komunikatua. Espektakuluaren gizarteak paisaia banalak eta kontsumorako espazioak sortzen ditu, eta asmakizun postmoderno horiek antza ez dute turistaren itxaropenik, ikusminik eta jakin-minik asetzen. Esperientzia izan aurretik jada digerituak diren tokiek nekez sortzen dute emoziorik bertaritzean.


Artikulu honetan, asmakuntzaren bidetik joan diren bi eredu aurkeztuko dira, geografia oso ezberdinetan kokatuak: Lanzarote uhartean eta Norvegian. Biak ala biak dira hein batean, urrun gelditzen diren tokiak, hots, hiri eta populazio zirkuitu eremuetatik urruti, eta era berean turismoaren Grand Tour tradizioaletik ere aparte. Era berean, esan daiteke faktore horrek lagundu duela bata zein besteak dituen lurralde-ezaugarri izugarriak gizaldietan zehar mantentzen, sumendiek moldatutako irla bata, bestea fiordoan sartu-irtenek marraztutako lurraldea.

Estrategiak

Lanzarotera, etxera itzuli zen Cesar Manrique munduan zehar ikasi eta lan egin ostean 1966.ean. Etxera itzultze horrek erroetara eta naturara bueltatzea ekarri zuen (Abalos, 2005) hein batean, eta atzera bueltako, edo zirkulua ixteko asmo horretan Lanzaroteko izaeraren berrirakurketarekin estrategia orokor bat lantzeko kapaz izan zen. Izaera horren oinarrian izugarriko paisaia baten aldarrikapena zegoen, sumendien indarrek moldatua, sekulako erakarpen atabikoa sortzen duena, irudimenari astindua ematen diona. Manriqueren ikuspegia bitarte irlaren hainbat gune eta elementu identifikatzen dira, eta taktika arkitektonikoen bidez, naturaren gorapamena lortzen da. Hots, artifizioaren bidez, arkitektura edo paisaia sortzen du, esanguratsuak bilakatzen ditu berezkoak diren geomorfologiak eta kulturak. Bide batez, arkitektura berri bat asmatzen du, garaiko diskurtsoaren ezaugarriari kasu egiten diena, eta egun tradizionaltzat ulertu daitekeena.

Norvegiaren kasuan, bertako Errepideen Administrazioak sustatutako plana da aipatu nahi duguna. *National Tourist Routes* izeneko ekimena duela 20 urte jaio zen eta herrialdeko toki urrutietara turistak erakartzea zen asmoa, errepide bidez herrialdea ezagutzeko. Horretarako, lurralde bakoitzeko administrazioari ibilbide ederrenak aukeratzeko eskatu zieten, eta horietan zehar puntu interesgarrienak zehazteko. Proposamen guztietatik 18 ibilbide aukeratu ziren (Schäfer, 2012). Noski, berez ezaugarri natural eta geomorfologikoak izugarrikoak diren toki batean, bertatik igarotzearekin nahikoa izan daiteke. Baina agintarien asmoa arkitektura eta paisaia-arkitektura sustatzea zen, eta horixe bera turistentzako amugisa erabiltzea eta bide batez 2. mailako errepideen erabilera eta mantenua bermatzea.

Bi estrategiek dute oinarrian turistak erakartzeko moduko formula baten asmakuntza, natura eta arkitekturaren arteko uz-



Ikuskizuna Sognefjell aparatuaren begitik.

tarpen baten bidez lurraldearen berezkotasunak azpimarratzea modu berritzaile batean. Lanzaroteren kasuan, hondartza eta eguzkiaren turismoa zen, noski, saltzen zen produktu nagusia, irlaren ekonomia sustatzeko zuten aktiboa, demagun. Baina jakina denez, antzekoak diren beste irla batzuetan ez bezala, gainbalio bat erantsi zioten Manriqueren ikuspegiari esker, hots, lengoia arkitektoniko modernoaren bidez gorpuzten ziren berezko gune erakargarriak sortuz, turismo-azpiegitura orokorrak (hotelak, aireportua, errepideak) osatuz. Norvegiaren kasua antzekoa da, bertako elementu erakargarriena natura bera da; mendiak, elurra, basoak, fiordoak, zirkulu polarra, aurora boreala, etab. Hala, luzera ezberdineko 2. mailako errepideetan zehar bidaiatuz, hainbat geldiuene markatzen dira, aipatu elementuak, baita fauna eta flora berezia ere, atzemateko, batez ere bista ederrez gozatzeko, atsedean hartuz edo paseo txiki bat emanez.

Arkitektura-taktikak

Manrique (1929-1992) artista oparoa izan zen, margolaritzari emana batik bat. New Yorken ibili ostean, haren ustez munduko tokirik ederrena zen Lanzarote sorterrira itzuli zen, irlaren estrategia turistiko nagusiaren irizpide oinarritzko eta estetikoak ezartzeko. *Arte/natureza-natureza/arte* ideiak bilduta 1966. urtetik aurrera, naturarekin harreman orekatua bilatzen zuten arkitektura- eta paisaiagintza-lanak egin zituen, betiere garaiko lengoia informala erabiliz. Sistematizazio edo arrazionalismo formalei muzin eginenez, tokian tokiko materiala eta baldintzak ziren haren lan-tresna (3).

Esan daiteke laba-harri beltzarekin kontrajartzen zuten zuri-tasuna eta forma organikoekin konbinatzen zituen bolumen arrazionalagoek, askotan biribilduek, sortzen zuten kontraste sentsuala direla lanaren ezaugarri nagusiak. Umetako oroitzapenek, «5 hilabete luzeko udarak Famarako hondartzan» (4), izango zuten eraginik. Hartara haren lanik esanguratsuenak dira *Jameos del Agua* (1968), *Mirador del Río* (1973), *Taro de Tabíche* (1968) eta *El Diablo* (1968) jatetxea besteak beste.

Kasu guztietan dago inguruko ezaugarrien azpimarratze bat, sortze bat, dela mendizerra baten gaina, dela sumendi inguru, dela lurrazpiko laba-hodi batean, espazio horren funtsa edo esentzia indartzea zuen helburu. Lanzaroteko arkitektura tradizionalaren kare zuria, patioak, hormaz eraikitako bolumen soil eta garbiak nahastuko zituen forma naturalekin, mimetizazioaren nahiz kontrastearen bila. Folklorikotasunera jo gabe, nostalgia kutsu batekin, baina modu sortzailean bertako eraikuntzaren legeak berrerabiltzea lortuko zuen Manriquek.

Aurreko ereduarekin alderatua, Norvegiako proiektua kolektiboagoa dela esan dezakegu, parte hartzen duten artista eta diseinatzaile zein eragileei erreparatzen badiogu; izan ere, *bisionario* laudatu baten lidergorik ez da ageri. Garaiak aldatu direlako, edota gizarte horren ezaugarria elkarlana delako, agian, administrazio zentralaren eta tokikoaren artean eraikitako proiektua da hau.

Hala ere, nahiz parte hartzen duten diseinatzaileak ugariak izan, denek dute lengoia komun bat, baliteke programak eraginda, edo bestela garaikideak direlako. **Interbentzioen** ugaritasun horrek ere, hamaika proiektu interesgarri sortu ditu, denak eskalaz txikiak, ezartzen diren tokian haien lekua bilatuz eta eskuarekin inguruari kasu egiteko esanez. Gehienak dira errepide arrunt batek eskatzen dituen zerbitzuak, ostera, autopistetako estandarizazioaren ordez, hemen partikular-tasuna ageri zaigu. Atsedenekuak, paisaia gogoan hartzeko dira, maldan bera jaitsi eta hondartzan bueltaxka emateko, ur-jauziaren orroaz gozatzeko, hegaztiak espiatzeko... Badira ere aurora boreala edo gauerdiko eguzkia behatzeko bereziki egokiak diren tokietara iristeko errepideak ere. Edota errepideari ferry bidez jarraitu behar bazaio, itxarongela txikiak ere badira. Hainbat errepide neguan itxita egoten dira, eta maiztetik aurrera soilik erabili daitezke, horrek irisgarritasunaren faktoreari kasu egiten dio, beti erabilgarri dagoen turismoaren joeraren alderantzizkoa.



Ikuste Aparatua Sognefjell-en.
C. V. Holmebakken lana

Ibilbide guztietako arkitektura-proiektuak ez dira gauzatu, hala ere badago non aukeratu: ferryarentzako itxarongunea Helgelandskysten ibilbideko Jektviken (2010) eta paisaiari erreparatzeko aparatua berezia Sognefjellet errepideko Nedre Oscarshaug-eko begiralekuan (1997), biak Carl-Viggo Holmebakk arkitektoaren lanak; Varanger bidean, Peter Zumthor-ek eta Louise Bourgeois-en elkarlanean sortutako Steilneset memoria (2011), zeinak sorgin-ehiza bateko biktimak gogorarazten dituen; aski ezaguna egin den Todd Saunders eta Tommie Wilhelmsen arkitektoek diseinatutako amildegi ertzeko behatokia Aurlandsfjellet bideko Stegastein-en (2006), edota Atlanterhavsvegen errepideko zubi bereziak, autoentzatu eta arrantzatu ahal izateko diseinatuak aldi berean (5). Horiek dira aipatuko nituzkeen proiektuetako batzuk ekimenaren diseinu-kalitate altua, egile eta lankidetzaren aniztasuna eta eskaintzen diren zerbitzuen ugaritasuna adierazi ahal izateko.

Kritika bat

Haatik, aipatu arkitektura- eta paisaia-erakustaldiak ez gaitu guztiz asetzen eta testuinguru partikularretan kokatuak direla ezin ahantz dezakegu. Norvegiak dituen petrolio-erreserbak direla-eta, horrek sortzen duen aberastasun monetarioa sozializatzeko izan duen arrakastak horrelako proiektu preziosistak egiteko ahalmen izugarria ematen du.

Txanponaren bestaldean, Lanzaroteraren egoera dugu, petrolioaren erabateko mendetasuna duen eredu ekonomiko batean katigatuta eta irteteko moduak asmatzen dabilena. Lanzaroteraren ereduaren kalteak, duen «adinagatik» errazago antzematen dira ziur aski, baina Manriqueren lanak eragin zuen iraultzak produktu eratorri nahiko banalak sortu ditu. Horrela, perretxikoen modura azaldu diren eta brokoli edo azalore formako hotel/resortek zuriz margotu eta integratuta dagoen arkitekturaren plantak egiten dituzte. Manriqueren motiboak banalizatu egin dira hein batean. Hori bakarrik ez, artistak identifikatutako lekuak dira, antza, hondartzaren alternatiba bakarrak eta bertaritzen den jende oldeak xarma guztia hondatzen du. Manrique da jaun eta jabe, Lanzaroten besterik ez balego bezala, alpertu egin da irlako sorkuntza arkitektonikoa eta zenbait kexu dira landa-tradizioak sortutako ondarearen alboratzea ekarri duela «manriquisismoak».

Norvegian, eskala txikiko arkitekturaren katalogo garaikide bat da Turismo Ibilbideetako eraikuntzatxoek osatzen dutena; hainbeste ezen betekada moduko sentsazioa izan baitezakegu, bestalde ezin hobeto dokumentatua dagoen ataria erreparatu ondoren. Esan bezala, urte beltzak ahalbidetutako oparotasuna da hau, eta horrela ere ulertu daiteke autoaren erabilera sustatzen duen turismo-estrategia, dena etxean gelditzen baita!

Funtsa

Agian, irudi dezake arkitektura «ona» bitarte dela turismoa eta, bide batez, lurralde baten susperraldi ekonomikoa lortu daitekeela. Arkitektura on horrek, eta diskurtso hau nahikoa errepikatua dago dagoeneko, ez du berez ezer konpontzen atzetik programa eta oinarrizko estrategia sendorik ez baldin badago behintzat. Agian, bi eredu hauen arrakasta aurretik zegoenaren indartzean datza; Lanzaroten irla eta bertako kultura dira aurrekari nagusiak; Norvegian, ordea, oso sakabanatuta bizi den populazioa lotzen duen errepide arruntaren sarea eta oinarri geografiko eta naturala dira aurrekariak. Arkitektura-edo paisaia-interbentzioak hemen osagarriak dira, alderdi sinbolikoaren azpimarragailu funtzionalak. Horrezaz gain, erabiltzen duten lengoia arkitektoniko garaikidea, erromanizismorik gabekoa, berritzailea eta hala ere integrazioa lortzen duena gehitzen badugu, bi kasu hauek guztiz eredugarriak direla berresten dugu, bakoitza bere egoera berezian.

Erreferentziak

- (1) Abalos, I (2005): “Hay un momento...”, Plataforma Arquitectura blogean (2009), <<http://www.plataformaarquitectura.cl/2009/06/07/hay-un-momento-inaki-abalos/>> [2013ko otsailean eskuratua].
- (2) Schäfer, R (2012): “The Norwegian National Tourist Routes”, <<http://www.topomagazine.com/blog/the-norwegian-national-tourist-routes.html>> [2013ko otsailean eskuratua].
- (3) Fundación César Manriqueren web ataria, <<http://www.fcmanrique.org/>> [2013ko otsailean eskuratua].
- (4) César Manriqueri buruzko web ataria, <http://www.cesarmanrique.com/biografia_e.htm> [2013ko otsailean eskuratua].
- (5) Norvegiako Turista Errepideen web ataria, <www.nasjonaleturistveger.no/> [2013ko otsailean eskuratua].

* Maider Uriarte arkitektoa da eta EHUren Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren dokortatu aurreko ikerketa-beka onuraduna.